

**LANKIDETZA ETA KOORDINAZIO PROTOKOLOA, FORU  
ALDUNDIETAKO HAUR ETA NERABEEN BABESEKO  
ZERBITZU ESPEZIALIZATUEN ETA DESGAITUEN  
LAGUNTZAKO ZERBITZUEN ARTEKOA.****SARRERA// Printzipio orokorra**

Egoitza harreraren bidezko zaintza jasotzen duten gizarte babesik gabe dauden haur eta nerabeak, nahiz eta ezgaitasunen bat izan, haurren babeseko sistemaren egoitza baliabideetan zainduko dira, baldin eta haien zaintza-behar bereziei erantzuteko modurik badago.

- **Arazoa zein den, eta zein egoeratik abiatzen garen**

Arazoa zein den: zaintza integrala eta espezializatua eskaini beharra gizarte babesik gabe egon eta egoitza harreraren bidezko zaintza jasotzen edo jaso behar duten haur eta nerabeei, baldin eta ezgaitasun larriren bat badute, haurren babeseko sarearen egoitza baliabidera moldatu eta bertan integratu daitezten eragotzen diena edo eragotz diezaikeena.

Ezgaitasun larriko egoerak dira, eta lotuak egon daitezke adimen nahastearekin nahiz jarrera edo portaera arazoekin, zeinek nabarmen mugatzen edo baldintzatzen baitute egoki gara daitezten pertsonaren beraren gaitasunak eta baliabideko bizikideenak. Halakoetan, beharrezkotzat eta lehentasunezkotzat jotzen da baliabide espezializatuak abiaraztea, ezgaitasunaren ondorio diren laguntza handiko edo orokorreko behar horiei erantzuteko.

Kontuan harturik aurrean dugun kasuistikaren konplexutasuna eta gaiaren gaineko erakunde eskudunen barne antolamendua (foru aldundiena), inoiz zailtasunak sortzen edo areagotzen dira Haurren Babeseko zerbitzuen eta Ezgaituen Laguntzako zerbitzuen artean harremanak eta koordinazioa izaterakoan.

Zailtasunak, gehienbat, honako arrazoi hauengatik sortzen dira:

- a) Ezgaitasunaren ondoriozko laguntza-behar espezifikoek gainditu egiten dituzte haurren egoitza harrerako sareak benetan dituen laguntza ahalbideak.

- b) Urriak dira ezgaitasun larria duten adingabeentzako egoitza baliabide espezifikoak.
- c) Zailtasunak daude Ezgaituen Laguntzako egoitza baliabideen sarea egokitzeko, eta behar bezala artatzeko, behin adin nagusitasunera iritsita eta Haurren Babeseko baliabidearen luzapen aldiak agortu ondoren, Ezgaituen Laguntzako baliabide babestu bat behar duten gazteak. Izan ere, halako gazteek, beren ezgaitasunaren ondorioz, ezin izan dituzte egokiro garatu beren autonomia eta gaitasunak, bizimodu independentea egiteko, eta ez dute gizarte eta familiako laguntza egokirik ere. Horren ondorioz, ikaragarri atzeratzen dira gazteak Ezgaituen Laguntzako egoitza baliabideetara bideratzeko prozesuak.
- d) Prebentzio, prestakuntza eta laguntza baliabideak falta dira, familia inguruan bertan, adingabe ezgaituak zaintzeko ardura duten helduentzat, eta horrek gehiegizko karga ekartzen die. Horren ondorioz, zenbaitetan, gurasoek, guraso-eginkizunetarako beren gaitasuna galtzen dute, eta neurri administratibo bat hartu behar izaten da, haur zein nerabeen babesgabetasuna aitortuz, eta adingabeak beren gizarte eta familia ingurutik bananduz.
- e) Prebentzio, prestakuntza eta laguntza baliabideak falta dira, adingabe ezgaituen senitartekoei aukera izan dezaten guraso-eginkizunetarako gaitzeko prozesu bat jarraitzeko, non beren seme-alaben behar bereziei egokiro erantzuteko behar diren trebetasunak garatuko dituzten. Baliabide horiei esker, alde aurretik familia ingurutik bananduak izan diren adingabeak familian berriro elkartzeko aukera sustatu liteke.

#### Zein egoeratik abiatzen garen:

Lurraldeen artean desberdintasunak daude haurren babesgabetasun arloan eta ezgaituen laguntza arloan eskumena duten erakundeen (foru aldundien) barne antolamenduari dagokionez (egitura, eta eginkizunen banaketa).

Lurraldeen artean desberdintasunak daude Haurren Babeseko Zerbitzuaren laguntza, antolamendu eta egitura eremuan.

Lurraldeen artean desberdintasunak daude Ezgaituen Laguntza Zerbitzuaren laguntza, antolamendu eta egitura eremuan.

Koordinazio zailtasunak daude Haurren Babeseko eta Ezgaituen Laguntzako zerbitzuen artean.

- **Zein lurraldetan edo zein udalerritan aplikatuko den**

Protokolo hau aplikatzekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde guztian, eta, hurrenez hurren, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru

aldundietako haur eta nerabeen babeseko zerbitzu espezializatuen eta ezgaituen laguntzako zerbitzuen arteko harreman guztietan.

Baita ere, aplikatzekoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuko udalerrri guztietan, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zerbitzuan –Osakidetza–, horrela dagokien horretan.

• **Zer lortu nahi den, oro har, eta zein helburu lortu nahi diren, zehazki,**

Zer lortu nahi den, oro har:

- Eskaintzen zaien zaintzaren kalitatea hobetzea babesik gabeko haur eta nerabeei.
- Behar duten arreta espezializatua bermatzea ezgaitasun maila handia izateagatik garapen fisiko, psikiko nahiz emozional egokia galarazia daukaten eta babesik gabe dauden haurrei zein nerabeei, dela Haurren Babeseko egoitza harreraren testuinguruan, dela Ezgaituen Laguntzako egoitza harreraren testuinguruan.
- Babesik gabe dauden eta gaitasun larria duten haur eta nerabeen behar espezifikoerantzutea.
- Egoitza harrerako baliabideetan sor daitezkeen arrisku larriko egoerak saihestea, halakoak sor baitaitezke eskura dauden bitarteko profesional eta materialen bitartez behar bezalako bermekin erantzun ezin zaien egoerei erantzutearen ondorioz. Egoera horietan, eragin kaltegarria izatera irits daitezke, ez bakarrik ezgaitasuna duen pertsonarengan, baita ere baliabideetan hartutako beste pertsonengan ere.

Zein helburu lortu nahi diren, zehazki:

- Zaintza eredu eta jardun protokolo egokia adostea, gizarte babesik gabeko adingabe ezgaituen beharrei erantzuteko, zaintza integratua emanaz.
- Esku hartzeko metodo komun bat sistematizatzea, haurrek eta nerabeek bi zerbitzu espezializatuen esku-hartzea behar duten kasuetan aplikatzeko.
- Egoitza harrera espezializatuetakoko baliabideetara bideratzeko egoerak ondo mugatzea, eta bideratze horiek egiteko protokolo bat ezartzea.
- Bi zerbitzu espezializatuen arteko koordinazio eta lankidetzaren etengabeak bermatzea, hartara informazioa partekatze bideak sortzeko, bai haurren eta nerabeen egoeraz bai eskubidea izan dezaketen baliabideez nahiz laguntzez, eta zaindarek eskubide horiek baliarazten dituztela bermatzeko.

- Bi zerbitzu espezializatuen esku-hartzea malgutzea, kasu bakoitzeko behar espezifikoaren osotasuna betetzen saiatzeko, oinarritzat hartuta bai erantzunkidetasuna bai baliabideen nahiz esku-hartze ereduen dibertsifikazioa.
- Ebaluazio irizpideak ezartzea, baloratzeko eta protokoloa zenbateraino egokitzen zaien aurreikusitako helburuei ezagutzeko.

- **Jarraitu beharreko prozedura abiarazten duten egoerak**

Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko 2005eko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak 7. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, erakunde publikoek lankidetzan jardun behar izango dute, eta beren jardunak koordinatu behar izango dituzte, haurrak eta nerabeak modu koherentean, antolatuan eta integralean zaintzeko. Hain zuzen ere, esku-hartzea eta baliabideak erabiltzeko arrazionalizazioari dagokienean, ahalik eta eraginkortasun maila handieneko zaintza bermatuko da. Lankidetzaren eta koordinazio hori administrazio publikoaren artean gauzatu beharko da, baita administrazio bereko sailen eta zerbitzuen artean ere.

Aurreko idatz-zatian ezarritakoaren arabera, eta egoitza harrerako haurrak eta nerabeak zaintzeari dagokionean, lankidetzaren eta kolaborazio eraginkorra bermatzearen, hauexek 2008ko uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuak, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituenak: lankidetzarako eta koordinaziorako protokolo bat ezarriko da; besteak beste, haurrak eta nerabeak babesteko foru aldundiek dituzten zerbitzu espezializatuek eta ezgaituak zaintzeko zerbitzu espezializatuek lankidetzan jarduteko eta koordinatzeko, ezgaitasun eta mendekotasun kasuetan egoitza zaintzarako formularik egokienak definitzearen.

Erreferentziatzeko esparru hori kontuan harturik, ebidentzia praktikoa gogoeta hau eragiten digu: koordinazio eta zaintza zailtasunak sortu izan dira bi zerbitzu espezializatuen artean (Haurren Babesa, eta Ezgaitasuna), behar bereziak dituzten adingabeei zaintza espezifikoa eta egokia eskaintzeko, hau da, profil hauek dituztenei:

- Adimeneko ezgaitasun larria edo moderatua duten haurrak eta nerabeak, ezgaitasuna lotua egon daitekeelarik jarrera nahaste arinekin edo nahaste psikiatrikoekin.
- Adimeneko ezgaitasun arina duten haurrak eta nerabeak, ezgaitasuna lotua egonda jarrera nahaste arinekin edo nahaste psikiatrikoekin.
- Gaitz neuromuskular bat edo bestelako patologia bat duten haurrak eta nerabeak; mediku, osasun eta laguntza zaintza orokorrak behar dituztenak.
- Bestelako patologia dituzten haurrak eta nerabeak, laguntza zaintza espezializatu orokorra behar dutenak (autismoaren ingurukoak, garuneko paralisia, etab.).

- **Jardunbideen bitartez jarraitu beharreko prozedura ezartzea**

1) HAUTEMATEA

Adingabea zaintzen ari den haurren profesional taldeak, adingabearen egoera baloratzeko eta haren beharrei erantzuteko duen eginkizuna betetzean, bere ardurapean izango du, ezgaitasuna nahiz mendekotasuna adieraz dezaketen sintomak hautematea.

2) BALORAZIOA

Haurren profesional taldeak, egon daitekeen ezgaitasun fisikoa, psikikoa edo intelektuala nahiz mendekotasun egoera baloratzeko behar adina datu dituenean, ezgaitasunaren kalifikazioa nahiz mendekotasunaren balorazioa eskatuko du.

Horretarako, adingabearen gaitzak edo zailtasunak adierazten dituzten sintomei buruzko informazioa bilduko du, eta egin beharreko izapideak egingo ditu eskaerak bidera daitezen –ezgaitasun maila kalifikatzekoak eta mendekotasun maila baloratzekoak–, kasuan-kasuan ezarritako protokoloari jarraituta.

3) EZGAITASUN ARLOAN ESKUMENA DUEN ORGANORA BIDERATZEA

Adingabea zaintzen ari den haurren profesional taldeak, behin datu objektiboekin egiaztatzen duenean baliabide espezializatu batean plaza bat eskatu beharra dagoela, orduan txosten bat prestatuko du baliabide horren egokitasuna arrazoitzeko edo justifikatzeko.

Prestatutako txostenari balorazioak erantsiko dizkio (ezgaitasuna eta mendekotasuna), eta, kasuan-kasuan ezarritako protokoloari jarraituz, ezgaitasun arloan eskumena duen organoari helaraziko dio.

4) BALIABIDERA BIDERATZEA

Foru aldundi bakoitzean ezgaitasunaren arloko eskumena duen organoak, bideratutako kasuak aztertu, eta baliabide egokia esleituko die.

5) JARRAIPENA

Haurren Babeseko Zerbitzuak teknikari bat izendatuko du, Ezgaituen Laguntzako baliabideen esparruan zaindutako adingabeen jarraipena egin dezan.

Teknikari horrek koordinazio estuan lan egingo du adingabeen zaintza daukaten teknikariek eta profesional taldeekin, eta kasuan-kasuan zehaztuko du zer erantzukizun eta zer eskumen dituen zaintza arlo bakoitzak (haurrak eta

ezgaitasuna), behar guztiei ezin hobeto erantzutea bultzatzearen, babesik gabeko adingabe ezgaituen zaintza integrala bermatuz.

- **Erabili beharreko inprimakiak**

Protokolo hau aurrera eramateko, foru aldundi bakoitzean dauden inprimakiak edo eskaera orriak erabiliko dira:

- Haurren Laguntza Zerbitzuko (egoitza harrera) jarraipen eta proposamen txostenen ereduak.
- Ezgaitasun maila kalifikatzeko eskaera ereduak.
- Mendekotasun maila baloratzeko eskaera ereduak.
- Haurren batzordeei proposamenak helarazteko ereduak.
- Ezgaitasun batzordeei proposamenak helarazteko ereduak.